LAB Irakaskuntza
Buletin digitala
2006ko urtarrilaren 26a 7. alea
ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA

# MAHAI SEKTORIALA: NEGOZIAZIOEN JARRAIPENA

## OPOSAKETAK, 2006ko Deialdia

Urtarrilaren 26ko Mahai Sektorialean Hezkuntza Sailak Araubide Bereziko Irakaskuntzetan Lanpostu Eskaintza Publikoko (OPE) deialdia egiteko erabakia hartu du, aurreko asteko Digitalean (Ikus 6. alea) azaldu genituen terminoetan. Sindikatuen artean jarrera desberdinak egon dira. LAB oso kritiko agertu da deialdiaren edukietan, eskainiko diren lanpostu guztiak HE2koak izatea nahitaezkoa iruditzen baitzaigu. Izan ere, administrazioak aurreikusten duen deialdi honetan 37 lanpostuetatik, 20 HE2 eta 17 HE1ekoak izango lirateke. LABek ez du onartuko HE1eko lanpostuen eskaintza, euskal irakaskuntzaren garapenerako irakasle euskaldunak beharrezko baitugu ikastetxeetan.

## 2006ko ORDAINSARIAK

- Mahaian administrazioak 2006. urteari dagokion soldata igoeraren berri eman du:

- Urtarrileko nominan %2ko igoera ezarriko dute.
  Otsaileko nominan, berriz, urtarrila eta otsaileko seiurtekoaren kapitalizazioaren zenbatekoa sartuko digute berariazko osagarrian, urteko 138,84 € izango dena irakasle guztiontzat (ordezkoak barne)

## MAISU-MAISTREN LEKUALDATZEA

Eman diren azken berrien arabera:

- 2 urteko geletako lanpostuak ere aterako dira lekualdatzera, LEHENENGO ALDIZ! Guztira 338 lanpostu aterako dituzte 3 urtetan zehar, plantiletan mugimendu gehiegirik ez eragiteagatik.

- DBH 1. zikloko 53 lanpostu aterako dira lekualdatzerako, zehaztuko den espezialitateen arabera. Aukera izango dute 97ko urtarrilaren 1a baino lehenago DBHko lanposturik hartu izan zutenek.

Hurrengo asteetan jarraituko dugu informatzen

**http://www.labsindikatua.org/sektoreak/irakaskuntza/publika**

| Araban | Bizkaian | Gipuzkoan | Nafarroan | Iparraldean |
|---|---|---|---|---|
| Bueno Monreal, 10 Behea | Rekalde zumarkalea,62 | San Bladi 1, behea | M.Zelaieta 75, 2.A | 13 Marengo Karrika |
| 01001 Gasteiz | 48010 Bilbo | 20013 Donostia | 31014 Iruñea | 64100 Baiona |
| Telf.: 945 259 544 | Telf.: 944 706 900 | Telf.: 943 458 562 | Telf.: 948 382 474 | Telf.: 0559595020 |
| Faxa.: 945 258 039 | Faxa.: 944 706 909 | Faxa.: 943 456 645 | Faxa.: 948 221 276 | Faxa.: 0559595021 |
| Irakaskuntzaaraba@ labsindikatua.org | Irakaskuntzabizkaia@ absindikatua.org | Irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatua.org | Irakaskuntzanafarroa@ labsindikatua.org | baiona@ labsindikatua.org |